



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko azaroaren 20a

32. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Garapen Ekonomikorako Departamenturako kreditu-gehikuntza ematen duena, 2.175.000 eurokoa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Foru Lege berri bat presta dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da erretira dezan Hezkuntzako Mahai Sektorialean aurkezturiko Lan-Eskaintza Publikorako deialdi proposamena. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Europara iritsitako asilo-eskaeren eta errefuxiatuen lekualdatze-prozesua azkartu dezan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeen eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teak aurkeztu dute (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Europar Batasunaren eta Amerikako Estatu Batuen artean negoziatzen ari diren ituna. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeen eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teak aurkeztu dute (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontuen Ganberak Nafarroako kontu publikoetarako eginiko zenbait gomendio aplikatu ditzan. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Parlamentuko Osoko Bilkura eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira konpromisoa har dezaten, pertsona inputatuen agerraldirik ez eskatzekoa eta halako pertsonarik ez gonbidatzekoa berarekin zerikusia duen prozesu penalen arrazoi, xede eta inguruabarrak azaltzera. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Interneteko atari berri bat eraiki dezan, lurralde- eta hiri-plangintzari buruzko informazioa eskuratzea eta herritarren parte-hartzea erraztuko duena. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztu du (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure autogobernua eta Ogasuna defenda ditzan gure foru araubidearen eta Nafarroaren eskubide historikoen aurkako eraso ororen aurrean. Geroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan arrakala digitala deuseztatzeko plan bat abian jar dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren Egunaren programa ofizialean sar dezan Xabierko Gazteluko basilikan San Frantzisko Xabierkoaren ohorezko ekitaldia egitea. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin behar diren ekintzak egin ditzan, Iruñeko aireportuko hegaldi eta ibilbide kopurua areagotzea lortzeko. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizonen eta emakumeen soldaten arteko arrailari aurre egiteko plan bat urgentziaz taxutu dezan. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak proposamen artikuludun bat igorriko dio Ele-dunen Batzarrari, Nafarroako Parlamentuan Aurrekontu Bulego bat sortzeko. Mozioa erretiratzea (19. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuko kideak Nafarroaren Egunean Xabierko Gazteluko basilikan izanen diren ekitaldietara joateari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko kontratuari buruzkoa, klinika horretako, Nafarroako Unibertsitateko, “Instituto Científico y Tecnológico de Navarra SA”-ko eta Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioko langileen, pentsiodunen eta haien senitartekoen oinarrizko osasun arreta eta arreta espezializatua ematekoa baita. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (21. or.).
- Galdera, ibaiek gainezka egiteagatik, euste-dikeetan eta ureztatze-azpiegituretan eragindako kalteak pre-saz konpontzeko ohiz kanpoko laguntzen ordainketari buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (22. or.).
- Galdera, Navarra Arena pabiloiaren funtzionamendu-aukerak aztertze lan-mahaiak ateratako ondorioei buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Tuterako Institutuko Bideari buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (23. or.).
- Galdera, lan-eskaintza publikoari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (24.or.).
- Galdera, energia eolikoari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, Nafarroaren Eguna ospatzeko Nafarroako Gobernuak prestatu duen programari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak toki entitateei zen-bait alorren kudeaketan laguntzeko duen unitate espezializatuari buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (25. or.).
- Galdera, Tokiko Administrazioa Berregituratzeko Planari buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (26. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren lan eskaintza publikoari buruzkoa. Galdera erretiratzea (27. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Garapen Ekonomikorako Departamenturako kreditu-gehikuntza ematen duena, 2.175.000 eurokoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2015eko azaroaren 11n hartutako erabakiaren bidez, ondoko foru lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura: "Foru Lege proiektua, Garapen Ekonomikorako Departamenturako kreditu-gehikuntza ematen duena, 2.175.000 eurokoa".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea ondoko foru lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia: "Foru Lege proiektua, Garapen Ekonomikorako Departamenturako kreditu-gehikuntza ematen duena, 2.175.000 eurokoa".

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, Garapen Ekonomikorako Departamenturako kreditu-gehikuntza ematen duena, 2.175.000 eurokoa.

ZIOEN AZALPENA

Garapen Ekonomikorako Departamentuan ikusi denez, Nafarroako Zentro Teknologikoei laguntzeko 2015eko ekitaldian aurrekontuetan ezarritako diru-kopuruak ez dira aski.

Horrenbestez, behar horiei aurre egiteko, kreditu-gehikuntza ematen da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 48. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

1. artikulua. Kreditu-gehikuntza ematea.

2.175.000 euroko kreditu-gehikuntza ematen da, ekitaldian Garapen Ekonomikorako Departamentuaren beharrei erantzuteko.

Zenbateko hori aurrekontu kontu-sail honetan aplikatuko da: 180011 18210 7309 467300 "Zentro teknologikoetarako ekarpenak: CENER – CIEMAT Fundazioari funtsak ematea maileguen amortizazioarako".

2. artikulua. Finantzaketa.

Kreditu-gehikuntza hori aurrekontuko kontu-sail hauen kargura finantzatuko da:

180011 18210 4701 467300 Bono teknologikoak ezagutza arloko zerbitzu intentsiboetarako	500.000,00
84001 18210 7701 467303 kontu-saila, "I+G+B proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun azterlanetarako diru-laguntzak enpresentzat. PO FEDER	500.000,00
180011 18210 7701 467307 Bono teknologikoak proiektu teknologikoetarako. PO FEDER	200.000,00
125005 16420 7709 467902 Banda zabala ezartzeko diru-laguntzak	500.000,00
180003 18330 6031 425200 Kudeaketa energetikorako plana Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan	275.000,00
180003 18330 2276 425200 Energia aurrezpen eta eragimenerako laguntza teknikoa	200.000,00
GUZTIRA	2.175.000,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Foru Lege berri bat presta dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasun Foru Lege berri bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasun Foru Lege berri bat presta dezan.

Zioen azalpena

Heldu den abenduaren 3an 25 urte beteko dira Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea argitaratu zenetik eta, hortaz, indarrean sartu zenetik.

Foru lege hori, oraingoa baino legebiltzar zati-katuago batek onetsia, indarrean dago oraindik ere, osasun arloko eskubideei dagokienez harrezkero arau ugari onetsi diren arren. Hona horien artean nabarmendu beharreko batzuk:

- Uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea, osasun laguntza espezializatuaren arloko itxaronaldien bermeei buruzkoa.

- Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.

- Martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legea, hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzkoa.

- Otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsonari.

Gure ustez, osasunari buruzko foru lege berri bat taxutu beharra dago, lau arazoirengatik batez ere.

Lehendabizikoa: arauak indarrean daramatzan 25 urteotan gertatutako arau-aldaketen transposizioa egin beharra dago.

Bigarrena: legegintza-teknikarengatik. Foru legean jasotako hainbat alderdi aldatu dira, eta aldaketa horiek lausotuta eta sakabanatuta ageri dira foru agindu eta dekretu ugaritan eta are legetan ere; beraz, konpilazio bat eta testu berri bat egin beharra dago.

Hirugarrena: PSN-PSOEren ustez, esparru berriekin bat datozen printzipio gidari berri batzuk jaso beharra dago atariko tituluan, zeinek itxuratuko baitute osasun eredu unibertsal bat, kalitatezkoa eta berdintasunezkoa sarbideari dagokionez, eta aldi berean baita gardena, parte-hartzailea eta erdigunean oinarritako osasun laguntza ipiniko duena.

Laugarrena: datozen 20 urteotarako zer osasun eredu nahi dugun zehaztu behar dugu, eta eredu hori arau berri baten bidez gortu.

Horregatik guztiagatik, talde sozialistak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroarako osasunari buruzko foru lege berri bat taxutu dezan, zeinetan honako alderdi hauek jasoko baitira gutxienez ere:

1. Osasun arloko esku-hartzeen arauketa berri bat.

2. Osasun arloko udal-eskumenak.

3. Erkidegoaren parte-hartzea, ibilbide laburra izan duten kontsulta-organoak aldatuz eta horiek gardentasunaren eta "osasun-gobernu onaren" arauetara egokituz.

4. Osasun-eskualdeen antolamendu berria. Eskualdeen antolamendua 22/1985 Foru Legean dago jasota.

5. O-NOZen oinarrizko egituraren eta hura osatzen duten organo guztien definizioa.

6. Gure osasun-sistemaren printzipio gidari berriak:

a. Osasun laguntzaren unibertsaltasuna.

b. Sarbide-berdintasuna.

c. Oinarrizko osasun laguntza erdigunetzat izatea.

d. Profesionalen parte-hartzea.

e. Sektorearteko lankidetzak.

f. Gardentasuna eta gobernu ona.

g. Eta abar.

7. Osasungintza Publikoaren kontzeptua eta eskumenak hedatzea, bertan larrialdiak, landa inguruneetako laguntza, laguntza soziosanitarioa eta laguntza aringarria sartuta.

8. Osasun laguntzaren kalitatearen arauketa.

9. Telemedikuntzaren arauketa.

10. Oinarrizko osasun laguntzako ekipoen birdefinizioa.

11. Osasun sistemaren gobernu ona gogoan hartzea.

12. Lankidetzak publiko-pribatuaren arauketa-esparrua, osasun arloko itunak, atxikitze-hitzarmen bereziak, eta abar.

13. Egintza medikoen araubide juridiko berria.

14. Osasungintza publikoaren gotortzea, behar adinako finantzaketa daukala eta zentroak eta zerbitzuak zuzenean kudeatuko direla bermatuz

15. Prestazioen zorro osagarriaren arauketa, zorroa balizko koordainketen aitzinean gotortuz.

16. Irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren blindatzea, Miguel Servet Fundazioaren eta Nafarroako Osasun Ikerkuntza Institutuaren bidez.

17. Kontzientzia eragozpena arautzea.

18. Osasungintzako langileen dedikazio eskusiboa ahal den gehiena bultzatzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 9an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da erretira dezan Hezkuntzako Mahai Sektorialean aurkezturiko Lan-Eskaintza Publikorako deialdi proposamena.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita erretira dezan Hezkuntzako Mahai Sektorialean aurkezturiko Lan-Eskaintza Publikorako deialdi proposamena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaldeko parlamentari Alberto Catalán Higuera, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Departamentuaren ildo nagusiak azaltze aldera legegintzaldi hasieran Hezkuntzako kontseilariak egindako agerraldian, departamentuaren lan eskaintza publikoaren deialdia urrian egiteko konpromisoa hartu zuen. Konpromiso hori ez da bete.

Iragan ostiralean, azaroak 6, Hezkuntzako kontseilariak Hezkuntza Departamentuan egin beharreko lan-eskaintza publikoa aurkeztu zuen Mahai Sektorialean.

Proposamen horren arabera, besteak beste, maisu-maistren kidegoko 320 lanposturako deialdia egin behar zen –228 euskarazkoak eta soilik 92 gaztelaniazkoak–, espezialitateen arabera banaturik. Hautaprobak 2016ko ekainetik uztailera bitarte egin behar ziren.

Ikuskatzaileen Kidegoan, deialdian 7 lanpostu izanen dira euskarazkoak eta 7 gaztelaniazkoak, eta hautaprobak 2016ko azaroan eginen direla aurreikusten da.

Deialdi horretan, justifikaziorik gabeko aldea dago, hizkuntzaren arabera, lanpostuen artean. Aitzakia, PAI-Ingelesez Ikasteko Programaren ezarpena.

Lanbide horretako sindikatuen ustez, deialdia desorekatua, alderdikoia eta gardentasun gutxikoa da, eta ez da ikastetxeen errealitatearen arabera, ez espezialitateko lanpostu hutsen kopuruari dagokiona. Sindikatuak orobat adierazi dute dei efektua eraginen duela euskarazko espezialitate guztietan eta gaztelaniazko askotan, milaka irakasle emigratu beharko dutela beste autonomia erkidego batzuetara eta euskarazko eta gaztelaniazko lanpostuen arteko oreka hautsi dela.

Halaber adierazi dute “lan-eskaintza publiko zeharo desorekatua” dela, “eskola euskaldunaren eredia soilik kontuan hartzen eta defendatzen duena, Nafarroaren hezkuntza arloko egiazko beharrianak proiektu ideologiko nazionalistaren mende jartzen dituena”.

Bere beldurra ere adierazi dute, Hezkuntza Departamentuak lanpostuen deialdia espezialitatei eta ez hizkuntzei erreparatuta egin dezakeelako, kontratazio zerrenda bakarra ezar dezakeelako eta, are, bi hizkuntzetarako epaimahai bakarra eratu dezakeelako. Hori horrela balitz, bidegabeki onuragarria izanen litzateke probak euskaraz egiten dituzten hautagaien zatia, eta kalte nabarmena, gaztelaniaz egiten dituztenentzat.

Parlamentuko Eledunen Batzarrak arbuia egin zuen departamentuaren proposamen hori, azaroaren 9an onetsi eta honako hau dioen adierazpen instituzional honen bidez:

“Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio Hezkuntzako Mahai Sektorialean iragan azaroaren 6an aurkeztutako lan-eskaintza publikoaren deialdi-proposamena erretira dezan.

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du euskararen eta gaztelaniaren egiazko oreka gordetzen duen lan-eskaintza publiko bat onetsi dezan, deialdiko lanpostuak hizkuntzaz hizkuntza atera ditzan, eta, halaber, oposizioeko epaimahaiak ezberdinak izan daitezzen hizkuntza bakoitzean eta oposiziotik sortzen diren kontratazio-zerrendak hizkuntzen eta espezialitateen arabera bereziturik egon daitezzen.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntza Departamenturako lan-eskaintza publikorako proposamen berri bat aurkez dezan, bidezkoa eta zuzena izanen dena.

Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Nafarroako Gobernuak hezkuntzako mahai sektorialari aurkeztutako enplegu-publikoko proposamena; izan ere, desoreka onartezina dakar euskaraz eta gaztelaniaz eskaintako lanpostu-kopuruari dagokionez, eta konparaziozko bidegabekeria eta aukerak gutxitzea dakartza bitarteko irakasle askorentzat eta Nafarroako Foru Komunitatean

haur eta lehen hezkuntzako prestakuntza gaztelaniaz jaso duten “

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntza Departamenturako lan-eskaintza publikorako proposamen berri bat aurkez dezan, ekitatezkoa eta justiziazkoa izanen dena eta euskarazko eta gaztelaniazko lanpostuen arteko egiazko oreka gordeko duena.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Europara iritsitako asilo-eskaeren eta errefuxiatuen lekualdatze-prozesua azkartu dezan.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion Europara iritsitako asilo-eskaeren eta errefuxiatuen lekualdatze-prozesua azkartu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroak errefuxiatuak hartzeko konpromisoa hartu du. Gizarte ekimeneko entitateak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta Nafarroako Gobernua elkarrekin ari dira lanean, 300 pertsona hartzeko plan eta programa bat prestatzeko.

Arazoa da egiazko emergentzia humanitario baten aurrean gaudela, eta horrek berehalako erantzun bat eskatzen duela; halere, prozesu neurrigabeki mantsoa suertatzen ari da pertsona horien lekualdatzearena.

Negua heldu eta egoera larriagotzen den bitartean, horren ardura duten gobernuek batak beste ari botatzen diote errua, beren geldotasuna, egoera eta jarrera zeharo ulertezina justifikatzeko.

Ehunka asilo-eskatzaile daude –bereziki, siriarak– Ceutako eta Melillako hirietan, eta Nafarroa ezin da besoak gurutzatuta gelditu egoera horren aitzinean.

Erabaki proposamena:

1. Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion Europara iritsitako asilo-eskatzaileen eta errefuxiatuen lekualdatze-prozesua azkartu dezan, hartutako konpromisoei jarraikiz. .

2. Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari eskain diezaion Ceutako eta Melillako etorkinen aldi baterako

harrera-etxeetan dauden asilo-eskatzailleak Nafarroako Foru Komunitatean berehala hartzeko aukera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du ACNUR-ekin kontakta dezan, bai eta errefuxiatuekin lan egiten duten GKE-ekin ere, esaterako eta besteak beste CEAR edo Gurutze Gorriarekin, haiei eskaintze aldera Nafarroak

asilo-eskatzailleak hartzeko aukera, zeinak une honetan jadanik egoera prekario eta ahulean baitaude Estatuan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 6an

Foru parlamentariak: Isabel Aramburu Bergua, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano, Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du Europar Batasunaren eta Amerikako Estatu Batuen artean negoziatzen ari diren ituna.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu Europar Batasunaren eta Amerikako Estatu Batuen artean negoziatzen ari diren ituna.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugun parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluen eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Herrien arteko merkataritza harremanak ohikoak izan dira historian zehar, baita interes handikoak ere, gizateriari ekarri dion aberastasun ekonomiko eta kulturalarengatik.

Hala ere, gaur egun Europako Batasuna eta Estatu Batuak, sekretuan eta antidemokratikoki, Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena negoziatzen ari dira. Merkataritza hitzarmen honek (ingelesezko akronimoa TTIP da) aisa gainditzen du merkataritzaren esparrua, eta eragin oso zabala eta atzeraezina izanen du bereziki osasunean, elikaduran, lanean, produktuen segurtasunean, ingurumenean, lan-eskubideetan, eta baita Nafarroako bizitza sozial eta ekonomikoko alderdi zehatz eta esanguratsuetan ere, gure produktuen jatorrizko izendapenetan esate baterako. Hitzarmen horrek zerbitzu publikoak are gehiago pribatizatzea ekarriko luke, eta *frackinga* bezalako teknikak –Nafarroako Parlamentuak arbuiaututakoak– eta elikagai transgenikoak sartzeari erraztuko luke.

Bestalde, hitzarmenak erabat alda lezake alor horiek guztiak arautzeko erakunde demokratikook erabiltzen dugun era; herritarren eskubideak erasotuko lituzke, alde batetik, eta, oro har, hainbat alorretan herritarren erabakitze eskubideari eraginen lioke, erabaki guneak herritarren interesetik eta borondate demokratikotik kanpo dauden organoetara eramanez.

Auzi honek garrantzi handia duen arren, Europako Batzordeko negoziatzaileek negoziazioen dimentsioaren gaineko iluntasuna besterik ez dute eskaintzen, eta, halaber, iluntasuna besterik ez, hitzarmenak izan litzakeen ondorioez. Beraz, bere izenean zer negoziatzen ari den jakiteko edozein herritarrek duen eskubidea urratzen ari da.

Azkenik, adierazi behar dugu TTIPak irismen handiko alde biko merkataritza hitzarmenen

mundu mailako lasterketa sustatuko duela, alde anitzeko merkataritza kaltetuz. Horrek arerio diren bloke ekonomikoen sorrera ekar lezake, herrialderik ahulenak eta pobreenak haien eragin ahalmenetik zeharo kanpo dauden arauetara behartuz, mundu mailako lankidetzeta mehatxatuz, eta erronka global komunei aurre egiteko bideak hobetzeko helburua duten sistemaren erreformarako ekimenak ahulduz, batez ere aldaketa klimatikoari eta ingurumenaren babesari dagokienez.

Horrenbestez, behean sinatzen dugun taldeok honako erabaki proposamena aurkezten dugu:

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak, Europako Batasunaren eta Estatu Batuen artean negoziatzen ari den hitzarmen proiektuak ekar litzakeen ondorio larriak eta sakonak aurreikusirik, TTIParekiko arbuioa adierazten du.

2. Nafarroako Parlamentuak Europako Batasunaren eta Estatu Batuen artean proiektu hau negoziatzeko garaian agertzen ari den ilunkeria arbuiatzen du, eta proiektua lantzeko garaian gardentasuna eta herritarren eskubideekiko errespetua eskatzen du, bereziki osasun-, lan-, gizarte- eta ingurumen-eskubideekiko errespetua.

3. Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

TTIParen aurkako jarrera adieraz eta defenda dezala Europar parte hartzen dueneko organo eta gune guztietan; Erregioen Batzordean besteak beste.

4.- Nafarroako Gobernuak honakoa eskatzen dio Espainiako Gobernuari: parte hartzen duen foro guztietan kontuan har dezala eta defenda dezala Europako Batasunaren eta Estatu Batuen artean merkataritzako hitzarmenerako edozein proposamen beti Europako Batasuna osatzen duten Estatu guztietan erreferendum baten bidez ebaztea, berretsia izan baino lehen; halaber, defenda dezala gauzatuko den tamaina honetako edozein negoziazio eta politika era garden batean eta herritar guztiengana iristeko modu batean egitea.

5.- Akordioa negoziatzeko garaian agertzen ari den ilunkeriarako arbuioa publiko eginen da, irismena dueneko hedabideetan publizitatea emanen zaio, eta herritarrak TTIParen inguruan informatuta egon daitezen lagundu eta sustatuko da, berariazko kanpainen bidez edo parlamentuko ohiko jarduren bidez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 11n

Foru parlamentariak: Virginia Alemán Arrastio, Dabid Anaut Peña, Carlos Couso Chamarro eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontuen Ganberak Nafarroako kontu publikoetarako eginiko zenbait gomendio aplikatu ditza.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Kontuen Ganberak Nafarroako kontu publikoetarako eginiko zenbait gomendio aplikatu ditza.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontuen Ganberak Nafarroako kontu publikoetarako eginiko gomendioak aplikatu ditza.

Kontuen Ganberak 2014ko Nafarroako kontu orokorreari buruz egindako txostenean hainbat gomendio egiten dira, kontabilitate publikoa zenbait alderditatik hobetzeko aplikatu beharrekoak.

Gomendio horietako batzuk urtez urte errepikatzen dira, eta ez dira ezarri; hartara, zehaztasuna galtzen da alde batetik, eta behar-

rezko eta nahitaezko informazioa falta da, bestetik.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Kontuen Ganberak Nafarroako kontu publikoetarako eginiko gomendio hauek aplikatu ditza:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra onestea.

2. Nafarroako Foru Komunitatearen ondasun eta eskubide guztien inbentario balioetsia egitea, ibilgetuko kontabilitate-saldoak oinarrituko dituen.

3. Kontu Orokorren oroitidazkian sartzeko ekitaldian eginiko jardueraren eta dagoen egoeraren hobeki ulertzeko informazio guztia.

4. Kontratuak eta sozietate publikoei egindako enkarguak garaiz izapidetzea.

5. Zerbitzuen kostua kalkulatzeko sistema bat ezartzea; besteak beste, osasun prestazioena.

6. NUPen jardueraren finantzaketarako eredu berri bat onestea, helburuak eta haien betetze-maila neurtzeko adierazleak ezarri, zeina beharrezkoa baita emaitzetan oinarritutako finantzaketa baterako.

7. Egungo testuinguru ekonomikoaren barruan aztertzea inbertsio-politika, eta produkzio-inbertsioak, inbertsio lehenetsiak eta bideragarriak sustatzea.

8.- Kontu-hartzailera Orokorra auditoriak egitea sozietate eta fundazio publikoek legezkotasuna betetzen ote duten ikusteko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Parlamentuko Osoko Bilkura eta Nafarroako Gobernuaren premiatzen dira konpromisoa har dezaten, pertsona inमतuen agerraldirik ez eskatzekoa eta halako pertsonarik ez gonbidatzekoa berarekin zerikusia duen prozesu penalen arrazoi, xede eta inguruabarrak azaltzera.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Parlamentuko Osoko Bilkura eta Nafarroako Gobernuaren premiatzen baitira konpromisoa har dezaten, pertsona inमतuen agerraldirik ez eskatzekoa eta halako pertsonarik ez gonbidatzekoa berarekin zerikusia duen prozesu penalen arrazoi, xede eta inguruabarrak azaltzera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko kide Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio hau aurkeztu die Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari:

Botere Judizialaren independentzia zuzenbidezko estatuaren oinarritzko osagai bat da. Estatu-ko botere guztiek errespetatu behar dute independentzia hori. Epai eta magistratu independente, inpartzial eta Legearen aginduari soilik men egiten diotenen osatutako Botere Judizial bat

egotea da herritarren eskubideen eta askatasunen berme nagusia.

Botere publikoek uko egin behar diote Botere Judizialaren funtzionamenduari esku-sartze gisa uler litekeen edozein jarduketa egiteari, oro har; eta bereziki, prozesu penalen esparruan.

Bi alderen artekoa –inputatuta dagoen/dauden subjektua(k) eta balizko akusazioak– den kontradikzio-prozedura gisa taxututako prozesu penal baten aitzinean, Parlamentuak albo batera jarri behar du. Inputatuta dauden pertsonak Parlatmentura etor daitezzen uzteak inplizituki esan nahi du jarrera bat hartzea. Arrazoi horrengatik berarengatik, akusazioari ere eman beharko litzaioke azalpenak emateko aukera. Horrek epaiketa paralelo bat egitea ekarriko luke. Hori dela-eta, prozesu penala ez oztopatzeko modurik onena da uko egitea aldeak –ez bata, ez bestea– deitzeari.

Prozesu penala egoitza judizialean ebatzi beharra dago, eta Parlatmentua ez da inputatuen eta akusatzaileen arrazoiak azaltzeko leku egokia. Ondorioz, herri-ordezkaritzaren egoitzan prozesuko alde zehatzei toki eginez prozesu penala ez oztopatzeko,

Honako mozio hau aurkeztu dugu:

Parlatmentuko Osoko Bilkura eta Nafarroako Gobernuaren premiatzen dira konpromisoa har dezaten, Espainian abiarazitako prozedura penalean inputatutako pertsonen agerraldirik ez eskatzekoa eta halako pertsonarik ez gonbidatzekoa berarekin zerikusia duten prozesu penalen arrazoi, xede eta inguruabarrak azaltzera”

Iruñean, 2015eko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Interneteko atari berri bat eraiki dezan, lurralde- eta hiri-plangintzari buruzko informazioa eskuratzea eta herritarren parte-hartzea erraztuko duena.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Interneteko atari berri bat eraiki dezan, lurralde- eta hiri-plangintzari buruzko informazioa eskuratzea eta herritarren parte-hartzea erraztuko duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legetik heldu diren betekizunek, eta horietako askoren transposizioa Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzko martxoaren 5eko 5/2015 Foru Legea egin izanak behartu egiten dute neurri zehatzen eta urgenteen bidez sakontzera herritarren parte-hartze eskubidearen garapenean eta herritar guztiek informazioarako sarbidea edukitzeko eskubidean, lurralde eta hirigintza planeamenduari dagokionez.

Horrek behartzen du erregelamendu bidez garatzera lehen aipatutako araudia, eta, gainera,

nabarmen hobetzera Nafarroako Gobernuan jada dauden baliabide materialak.

Horretaz gain, udal-planeamendua –zeina, zalantzarik gabe, parte-hartze prozesuen eta dokumentuen iturri nagusia baita– gehienbat toki esparruan sortu eta izapidetzen denez, eta herritar guztiek ez dutenez aukerarik ezarritako parte-hartze prozesuak eta informazioa kontsultatzeko, beharrezkoa da traba horiek gainditzeko formulak paratzea.

Horregatik guztiagatik, honako mozio hau Osoko Bilkuran onartzea eta izapidetzea eskatzen da. Mozioan Nafarroako Gobernuak premiatzen da:

1. Interneteko atari berri bat presta dezan, zeinetan jasoko baita Nafarroan indarrean dagoen lurralde- eta hirigintza-planeamenduari buruzko dokumentazio guztia, halako formatuan eta moduan non edozein interesdunek ahalko baitu hura behera kargatu eta erabili, horri buruz erregelamendu bidez ezartzen denaren arabera.

2. Atari horretan sar dezan unean-unean gartzen diren herritarren parte-hartze prozesuei eta jendaurreko prozesuei buruzko informazio eta dokumentazio guztia, toki esparruan abian jartzen den aldi berean.

3. Atari horretan jaso dezan parte-hartze eta jendaurreko prozesu horietan bide telematikoen bidez parte hartzeko aukera, idazkiak eta dokumentuak helbide egokira bidaliz, bai foru administrazioaren esparruan, bai toki administrazioenean.

4. Koordinazio neurriak taxutzea, ahalbidetuko dutenak parte-hartze eta jendaurreko prozesuak has daitezen lurralde- eta hirigintza-planeamenduaren atari berrian informazioa libreki baliatu ahal izateko moduan jartzen den une berean, halako moduan non ez den desfaserik eta parte-hartze eskubideen minoraziorik gertatuko, herritar guztien parte-hartzeari dagokionez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure autogobernua eta Ogasuna defenda ditzan gure foru araubidearen eta Nafarroaren eskubide historikoen aurkako eraso ororen aurrean.

GEROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gure autogobernua eta Ogasuna defenda ditzan gure foru araubidearen eta Nafarroaren eskubide historikoen aurkako eraso ororen aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko eledun Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Orain dela gutxi, Mariano Rajoy Iruñera hurbildu da UPNren eta PPren arteko akordio bat sinatzera. Akordio horren arabera, UPN PPri lotuta gelditu da, Rajoy Gobernuak lehendakari izateko botoa emateko konpromisoarekin; ordainetan, PPK Konstituzioaren laugarren xedapen iragankorra kentzeko konpromisoa hartu du, baldin eta Konstituzioa aldatzen bada.

UPNren lehendakaria ausartu zen esatera Nafarroan ere, Katalunian bezala, “desafio” bat dagoela. Ez da egia! Nafarroan, gaur egun, inork ere ez du planteatzen Katalunian gertatzen ari denarekin zerikusirik duen ezer, eta inork ere ez du gisa horretako keinurik txikiena ere egin.

Geroa Baik beti defendatu du ezen, Nafarroa subjektu politikoa izaki, nafarrak direla bere etorkizun politikoa erabaki behar duten bakarrak. Hori da gure konpromisoa, eta eutsi egiten diogu, Nafarroako herritarren borondate espresa gure asmoekin bat etorri zein ez.

Nafarroak bizi duen desafio handia da gure subiranotasun fiskala jasotzen ari dena, eta ez, hain justu ere, gainontzeko foru lurraldeetatik. UPNren eta PPren arteko akordio horretan ez da deus ere esaten Gobernu zentralak ezarritako politika birzentralizatzaileak aldirantzekatzeari buruz –zeinak kalte larria egiten ari baitira toki administrazioan, hezkuntzan, finantza-autonomian, langileak kontratatzeke politikan, eta abar–, ez eta eskualdatzeke dauden eskumenak lekualdatzeko ezetzari buruz ere. UPNrentzat erosoago da mehatxua gainontzeko foru lurraldeetan kokatzea, nahiz eta gure autogobernua egiaz murrizten ari dena Madrilan egon, Estatu gero eta berekoiago eta jakobinoago baten baitan.

UPNk sinatutako akordioan, babes lauso bat ematen zaio Hitzarmen Ekonomikoari, kontzientziak isilarazteko behar adinakoa hain zuzen ere. Denok ikusi dugu, ordea, PPren etorkizunean zeresan handiagoa izan dezaketen zenbait feudotatik, are gehiago Rajoyri ordezko bat bilatu behar izanen baliote– gupidarik gabe erasotzen diotela.

Baina ez daude bakarrik. Era berean, azken urteotan eta oraintxe arte, PSOEko zenbait kide garrantzitsuk Hitzarmena kritikatu eta desager dadin eskatu dute, enfasi handia jarriz gure ogasunari eraso egiteko.

Bere proposamenetan oldarkorragoa izaten ari da Ciudadanoseko lehendakari Albert Rivera, zeinak behin eta berriro eta bipilki adierazi baitu EAEko Itun Ekonomikoarekin eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoarekin bukatzearen alde dagoela, halako moldez non proposatu baitu, bi erkidegoetako araubide fiskalez ari delarik, “miniogasun probintzialak” bi ogasun autonomiko bihurtzea eta araubide komunean sartzea.

Aurrekari horiek guztiak hartzen baditugu eta UPNren lehendakari Esparza jaunak aspaldi egindako adierazpenak gogoratzen baditugu –adierazi zuenez, ez luke inolako eragozpenik izanen etorkizunean Ciuddanosekin hitzarmen bat egiteko–, gure kezkek goia jotzen du

Hori guztia ondotxo daki UPNk, hala nola dakien PPren eskutik joateak berekin ekarriko bide duela beste bazkide bat ere edukitzea. Ciudadanos ote bazkide hori? Hala balitz, kostua oso handia izanen litzateke autogobernuaren ikuspuntutik.

Ordaindu beharreko lehenengo pieza laugarren xedapen iragankorra izanen litzateke, baina zer gertatuko litzateke lehen xedapen gehigarriarekin edo Hitzarmen Ekonomikoarekin berarekin? ... Inork uste al du UPNk behar adinako indarra eta erabakitetasuna izanen dituela desafio horiei aurre egiteko?

Erabaki proposamena:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure autogobernua eta ogasuna defenda ditzan, Nafarroaren foru araubidea eta eskubide historikoak ezagutzen bide ez dituztenek

edo onartu nahi ez dituztenek hainbat esparru politikotatik egindako eraso ororen aitzinean.

– Parlamentu honetan ordezkaturako alderdi politikoek konpromisoa hartzen dute gure erkidegokoak ez diren foroetan soilik hartutakoak diren eta gure autogobernuari eragin diezaioketen erabakiak ez onartzeko.

Iruñean, 2015eko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan arrakala digitala deuseztatzeko plan bat abian jar dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan arrakala digitala deuseztatzeko plan bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Teknologia berrien erabilerak –zehazki, Internetenak– harreman-moduak aldarazi ditu. Horrek isla garbia dauka gizarte-, ekonomia- eta merkataritza-jokabide berrietan. Horiek guztiak egunerokoak dira, eta eragina dute garapen pertsonalean eta profesionalean, edo, gauza bera baita, kulturaren, informazioaren, enpleguaren eta aisiaren eskuratzean.

Administrazioaren erronkarik nagusienetako bat da murriztea, eta are desagerraraztea, arrakala digitala izenez ezagutzen dena, komunikazio-molde berriak eskueran dituztenen eta, arrazoiak arrazoi, formatu horiek eskuratu ezin dituztenen arteko aukera-desberdinkeria markatzen baitu.

Arrakala digitalaren arrazoia geografikoa izan daiteke –sarerako sarbideari dagokionez, alde handia dago landa eremuen eta hiri eremuen artean eta konexio-zailtasunak dituzten eremuetan–, soziala, ekonomikoa, belaunaldien arabera nahiz generokoa. Arrazoi horietako edozeinek egiazko diskriminazioa eragiten du pertsonen artean, Nafarroako Foru Komunitatean argi eta garbi ikus daitekeenez.

Etorkizuneko nahiz oraingo aukera-berdintasuna baldintzatuko du pertsonak mundu digitalean eguneratuta egoteko duten gaitasunak.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan arrakala digitala gainditzeko plan bat abian jar dezan, ekintza zehatzak jasoko dituen bazterkeria digitala pairatzeko arrisku handiena duten kolektiboen alde –persona nagusiak, ikasketa gutxiko pertsonak, identitate digitalik gabeko autonomoak edo/eta mikro-ETEak– eta emakumearen berdintasuna bultzatuko duena Interneteko erabilerari aurreratuei dagokienez.

Iruñean, 2015eko azaroaren 12an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroaren Egunaren programa ofizialean sar dezan Xabierko Gazteluko basilikan San Frantzisko Xabierkoaren ohorezko ekitaldia egitea.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroaren Egunaren programa ofizialean sar dezan Xabierko Gazteluko basilikan San Frantzisko Xabierkoaren ohorezko ekitaldia egitea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko parlamentari Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

“San Frantzisko Xabierkoaren figura eredu gailen bat izan da nafarrentzat, giza ezinegon eta kezka intelektualarena, gorputzez eta arimaz jarduteko jarrerarena eta abenturazaletasunarena, Lurreko toki urrunenetara iristeko zailtasun eta ahaleginen aurrean ez kikiltzearena.”

“San Frantzisko Xabierkoa da nafar unibertsalaren eredu, mundu osoko kultura eta herriei irekia, kontinente guztietako herrialde askotako erkidegoetan gogoratua eta miretsia, baita gaur egun ere.”

“San Frantzisko Xabierkoaren jaia abenduaren 3an ezarri zen behin betikoz, bere heriotzaren urteurrena egun horretan baita, eta Nafarroako Foru Komunitateak, araua eta tradizioa uztarturik, egun horretan bertan ezarri nahi du Nafarroaren Eguna.”

Hiru lerrokada horiek hitzez hitz agertzen dira Abenduaren 3a, San Frantzisko Xabierkoaren Eguna, “Nafarroaren Eguna” deklaratzeko duen irai-

laren 27ko 18/1985 Foru Legean, eta horrek agerian uzten du Parlamentu osoaren borondatea Nafarroaren Egunaren ospakizuna Nafarroako zaindariarekin uztartzeko.

Hori guztia dela eta, Nafarroaren Egunaren ospakizuna ez litzateke ulertuko Nafarroako zaindariarekiko harreman zuzenik gabe, inoiz izan den nafarrik unibertsalena baita.

Historian apur bat sakonduz gero, gogora ekar dezakegu 1622an Nafarroako Erresumako Diputazioak patroizendatu zuela San Frantzisko Xabierkoa, Gregorio XV.a Aita Santuak 1622ko martxoaren 12an hura kanonizatu ondoren. 1624an, Nafarroako Gorteek xedatu zuten Diputazioa urterotan joan zela meza solemne batera Jesusen Konpainiaren elizara, Iruñean.

1657an, Alejandro VII.a Aita Santuak Nafarroako patroizendatu zituen San Fermin eta San Frantzisko Xabierkoa. 1767tik aitzina, jesuitak kanporatzearen ondorioz, ospakizuna Iruñeko San Saturnino parrokiaren egiteko ohi zen.

Nafarroako Foru Diputazioak, 1836an eratuta, ospakizun horrekin jarraitu zuen. 1946an, ospakizun-meza Iruñeko katedralera eramane zen, eta 1979an, Xabierko Gazteluko basilikara. Santua ohoratzearen tradizio hori urtez urte mantendu da demokrazia-garai osoan, Nafarroako Gobernuan zegoen alderdi politikoa zein ere zen.

Orobat gogorarazi beharra dago Nafarroako Parlamentu edo Gorteek onetsitako 18/1985 Foru Legeak Nafarroaren Eguna deklaratu zuela abenduaren 3a, Frantzisko Xabierkoaren ospakizuna.

Erresumako Diputazioak San Frantzisko Xabierkoa Nafarroako patroitzat hartzeko erabakia hartu zuenetik, nortasun-ikur bihurtu da nafarrentzat eta Nafarroarentzat.

Gobernuko kontseilari eledunak, Nafarroaren Eguneko programa aurkeztean, adierazi zuen bertan behera utzi zutela Xabierko Gazteluko basilikako ekitaldia “Gobernuak ekitaldi zibilak antolatzen dituelako. 1978az geroztik Estatu akonfesional batean gaude, Konstituzioak jasotzen duen moduan”. Hori guztia alde batera utzita mendeetan zehar egin izan dena, une jakinetan izan ezik, bai eta aro demokratiko honetan ere,

Espainiako Konstituzioa onetsi zenetik, eta ideologia desberdinetako alderdi politikoeekin.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroaren Egunaren programa ofizialean sar dezan Xabierko Gazteluko basilika

San Frantzisko Xabierkoaren ohorezko ekitaldia egitea, mendeetan zehar egin izan den moduan.

Corellan, 2015eko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarduketa programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa-programa bat presta dezan seme-alabek gurasoei egindako erasoen kasuetarako.

Gurasoekiko indarkeria familia barneko indarkeria modu bat da, non seme-alabek hitzez, emozioen bidez, ekonomikoki eta fisikoki beren guraso edo zaintzaileez abusatzen baitute, kontrola edukitze aldera. Ez da fenomeno berria, baina

azken urteetan hazkunde handia izan du; hori dela eta, kontingentzia-plan urgente bat behar da.

Indarkeria mota honetako bai jatorria, bai faktore eta baldintzatzaileak, hainbat arrazoik determinatu ahal dituzte; hala nola, arrazoi ekonomikoak, sozialak eta hezkuntzakoak, eta, halaber, neurri handi batean, seme-alabek gurasoen autoritatea ez hautemateak eta haiekiko errespetua galdu izateak. Bestalde, gure gizarteko adingabeek teknologia berrietara erabateko sarbidea izateak eragin arriskutsua izan dezake, bortxakeriazko jokamoldeak ekar ditzaketen lanabes bihurtzen baitira.

Adingabeen Fiskaltzaren oroitidazkian jasotako datuek errealitate goibel hori islatzen dute, bai eta gure erkidegoan gurasoei eginiko erasoen kopuruaren gorabidea ere. Hartara, 2014an, gurasoen aurkako 62 eraso erregistratu ziren. Kopuru hori oraindik ere negatiboago gertatzen da 2013an erregistratutako 42 kasuekin alderatzen badugu, eta azken hiru urteetako goranzko joera nabarmen uzten jarraitzen du.

Egoera egiazki kezagarria da, zeren ere ematen baitu ez abiatutako lege-neurriak, ez aurrera eramane diren sentsibilizazio kanpaina guztiak ez direla nahikoak izaten ari, eta gero eta adingabe gehiago dagoela beren bizimoduarekin ase sentitzen ez direnak eta uste dutenak beren gurasoek haien betebeharrak guztiak ase behar dituztela.

Halaber, gero eta gehiago diren arren beren seme-alaben aurkako salaketa aurkezteko erabaki zaila hartzen duten gurasoak, oraindik ere asko dira tratu txarra pairatzen eta isilik gelditzen jarraitzen dutenak, askotan errudun sentitzen direlako eta batzuetan seme-alabak adingabeentzako zentrotan sartuko dituzten beldur, zeren eta uste bai-

tute zentro horietan egoera larriagotu egin daitekeela. Erasoak egiten dituzten gurasoak salaketak aurkeztera bultzatzen dutena izaten da, askotan, erasotzailearen anai-arrabak babestea.

Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltzaren memoriak bere lerroetan jasotzen duenez, "salatutako seme-alaba gehienen kasuan, estupefazianteen kontsumo arazoak aurkitzen dira, edo arazo psikologikoak, eta kasu horietan salatzaileak bere salaketarekin egiazki bilatzen duena da erakunde-
ei laguntza eskatzea, semea edo alaba desohitzeko programetan sarrarazteko edo establezimendu psikiatrikoetara eramateko edo jada pautatua izaten duten tratamendu medikoarekin jarraitzeko. Kasu hauetan, eskarmentuak erakusten digu ezen, zeregin penalaz haratago, jarduketa sozial garrantzitsu bat egin beharra dagoela."

Gurasoekiko etxeko indarkeria, Fiskaltzaren aipatutako oroitidazkiak baieztatzen duenez, "drama bat da, zeinean milaka familia baitaude sartuta, eta atal desberdinek ahalegin handiena egiten duteneko delitu-modalitatea izaten jarraitzen du, eta tamalgari gertatzen da gurasoen gaitasunak indartzeko politika eta prebentzio-jokamoldeak nahiko ez izatea. Maiz samar gertatzen da gurasoak fiskaltzara doazela gizarte zerbitzuek berek deribatuta, bizikidetasun arazoei konponbidea emate aldera, baita hamalau urtez beherako adingabeen kasuetan ere"

Adituen esanetan, komunikazioa eta bizikidetasuna ezinbesteko bitarteko dira adingabeek sortu-

tako autoritate-arazo eta familia-gatazkei konponbidea ematen saiatzeko.

Arazo honi konponbidea bilatzea ez da kontu erraza, baina badirudi logikoa dela pentsatzea hori soilik lortu ahal dela administrazio publikoak eta horretan sartutako agente sozial guztiak partaide eginen duen baterako lan baten bitartez, hezkuntza-balioak indartze aldera eta adingabeei beren eskubideez ez ezik dauzkaten betebeharez informatzeko politika sozial eta familiarak garatze aldera.

Hori dela eta, guztiz ezinbestekotzat jotzen dugu fenomeno hau desagerrarazten saiatzeko erabakigarria den eginkizun bat bete behar duten bi elementu azpimarratzea: prebentzioa eta hezkuntza.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du:

administrazio publikoen jarduketa programa bat taxutu dezan, seme-alabek gurasoen aurka baliatutako indarkeria kasuei aurre egiteko eta erantzun egokia emateko, besteak beste ondoko neurriak jasoko dituen: jarduketa protokolo bat, profesionalentzako prestakuntza, eta ukituentzako informazioa, bitartekaritza, laguntza eta aholku-ematea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin behar diren ekintzak egin ditzan, Iruñeko aireportuko hegaldi eta ibilbide kopurua areagotzea lortzeko.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin behar diren ekintzak egin di-

tzan, Iruñeko aireportuko hegaldi eta ibilbide kopurua areagotzea lortzeko. Galdera 2015eko urriaren 23ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizonen eta emakumeen soldaten arteko arrailari aurre egiteko plan bat urgentziaz taxutu dezan.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gizonen eta emaku-

meen soldaten arteko arrailari aurre egiteko plan bat urgentziaz taxutu dezan. Galdera 2015eko urriaren 23ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak proposamen artikuludun bat igorriko dio Eledunen Batzarrari, Nafarroako Parlamentuan Aurrekontu Bulego bat sortzeko.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeak, 2015eko azaroaren 17an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren arabera, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak proposamen artikuludun bat igorri behar

zion Eledunen Batzarrari, Nafarroako Parlamentuan Aurrekontu Bulego bat sortzekoa. Mozioa 2015eko urriaren 19ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuko kideak Nafarroaren Egunean Xabierko Gazteluko basilikan izanen diren ekitaldietara joateari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko kideak Nafarroaren Egunean Xabierko Gazteluko basilikan izanen diren ekitaldietara joateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

UPN-Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroaren Egunean ospakizuna ez da ulertzen ahal ospakizuna Foru Komunitatearen patroiarri –inoizko nafar unibertsalena, San Frantzisko Xabierkoa– zuzenean lotu ezean.

1622an, Nafarroako Erresumako Diputazioak patroia izendatu zuen San Frantzisko Xabierkoa, Gregario XV.a Aita Santuak 1622ko martxoaren 12an hura kanonizatu ondoren. 1624an, Nafarroako Gorteek xedatu zuten Diputazioa urtero joanen

zela meza solemne batetara Jesusen Konpainia-
ren elizara, Iruñean.

1657an, Alejandro VII.a Aita Santuak Nafarroako patroia izendatu zituen San Fermin eta San Frantzisko Xabierkoa. 1767tik aitzina, jesuitak kanporatzearen ondorioz, ospakizuna Iruñeko San Saturnino parrokiaren egin ohi zen.

Nafarroako Foru Diputazioak, 1836an eratuta, ospakizun horrekin jarraitu zuen. 1946an, ospakizun-meza Iruñeko katedralera eraman zen, eta 1979an, Xabierko Gazteluko basilikara.

Santua ohoratzearen tradizio hori urtez urte mantendu da demokrazia-garai osoan, Nafarroako Gobernuan zegoen alderdi politikoa zein ere zen. Orobat gogorarazi beharra dago Nafarroako Parlamentu edo Gorteek onetsitako 18/1985 Foru Legeak Nafarroaren Eguna deklaratu zuela abenduaren 3a, Frantzisko Xabierkoaren ospakizuna.

Erresumako Diputazioak San Frantzisko Xabierkoa Nafarroako patroia izendatzeko erabakia hartu zuenetik, nortasun-ikur bihurtu da nafarren-tzat eta Nafarroarentzat.

Horregatik guztiagatik, honako hau galdetzen diot Gobernuari:

– Nafarroako Gobernuko kideak Xabierko Gazteluko basilikako ospakizun horretara joanen al dira aurtan, ala mendeetan zehar iraun duen tradizio bat hautsiko al dute?

– Joanen ez baldin badira, zeintzuk dira erabaki horren arrazoiak?

Corellan, 2015eko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko kontratuari buruzkoa, klinika horretako, Nafarroako Unibertsitateko, “Instituto Científico y Tecnológico de Navarra SA”-ko eta Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioko langileen, pentsiodunen eta haien senitartekoen oinarrizko osasun arreta eta arreta espezializatua ematekoa baita.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko kontratuari buruzkoa, klinika horretako, Nafarroako Unibertsitateko, “Instituto Científico y Tecnológico de Navarra SA”-ko eta Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioko langileen, pentsiodunen eta haien senitartekoen oinarrizko osasun arreta eta arreta espezializatua ematekoa baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez

Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Heldu den abenduaren 31n amaitzen da Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko kontratua, zeina klinika horretako, Nafarroako Unibertsitateko, “Instituto Científico y Tecnológico de Navarra SA”-ko eta Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioko langileen, pentsiodunen eta haien senitartekoen oinarrizko osasun arreta eta arreta espezializatua ematekoa baita. Hori horrela,

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik, Kontuen Ganberak 2014ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko fiskalizazio txostenean gomendatzen duenari jarraikiz, aztertzeke ea zerbitzua besteren bitartekoen bidez eman behar den –kasu horretan, lehia sustatu behar da– ala sare publikoak bere gain har dezakeen?

Iruñean, 2015eko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, ibaiek gainezka egiteagatik, euste-dikeetan eta ureztatze-azpiegituretan eragindako kalteak presaz konpontzeko ohiz kanpoko laguntzen ordainketari buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, ibaiek gainezka egiteagatik, euste-dikeetan eta ureztatze-azpiegituretan eragindako kalteak presaz konpontzeko ohiz kanpoko laguntzen ordainketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2015eko lehen hiruhilekoan izandako euriteek euste-dikeetan eta ureztatze-azpiegituretan eragindako kalteak presaz konpontzeko ohiz kanpoko laguntzak emateko arauak ezarri zituzten foru aginduak argitaratuta, eta Gobernuak kasuko ikuskapenak egin dituenek, honako hau jakin nahi dut:

Gobernuak noiz ordainduko ditu laguntza horiek?

Iruñean, 2015eko azaroaren 10ean

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, Navarra Arena pabiloiaren funtzionamendu-aukerak aztertze lan-mahaiak ateratako ondorioei buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, Navarra Arena pabiloiaren funtzionamendu-aukerak aztertze lan-mahaiak ateratako ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Navarra Arena pabiloiaren zalantzazko egoera ikusita –jada 59 milioi euroko kostua izan du–, kontuan hartuta pabiloiaren ustiapen plan bat taxutze aldera Gizarte Politiketako kontseilari ohi Iñigo Alliren burutzapeko lan-talde bat eratu zela 2014ko martxoan, honako hau jakin nahi dut:

Zer ondoriotara heldu zen pabiloiaren funtzionamendu-aukerak aztertze lan-talde hori,

zeina 2014an Gizarte Politiketako kontseilari ohi Iñigo Alliren burutzapean egon baitzen?

Iruñean, 2015eko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, Tuterako Institutuko Bideari buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, Tuterako Institutuko Bideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zer konponbide eta alternatiba planteatuko ditu Tuterako Institutuko Bideari dago-kionez, bide hori itxiz gero sortuko diren arazo guztiak konpontzeko?

Iruñean, 2015eko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntzako kontseilariak lan-eskaintza publikorako proposamen bat egin zuen azaroaren 6ko Mahai Sektorialean, Eledunen Batzarrak adierazpen instituzional baten bidez arbuatu zuena, desorekatua eta bidegabea izateagatik. Hezkuntza Departamentuak noiz egingen du proposamen ezberdin bat, eta zer edukitakoa?

Corellan, 2015eko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, energia eolikoari buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, energia eolikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peña, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamendua adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroan parke eoliko ugari jarri da azken urteotan. Gaur egun, herrialdearen energia elektrikoari dagokionez dituen beharrak asetzeko adina energia sortzen da horietatik, eta energia hori kanpora eramateko aukera ere badu.

Zenbait urtean parke eoliko berri gehiago ez ezartzeko erabakia hartu ondoren, eta parke eolikoan hedapena geldituta egon ondoren, badirudi parke berriak eraikitzeak aukera aztertzen ari dela berriz, eta badaude horretarako proiektu zehatzak.

Galdera

Energia eolikoari buruz, ba al dauka horren inguruan Nafarroako Gobernuak inolako azterketa edo aurreikuspen zehatzik? Eta, halakorik ez badauka, ba al dauka Nafarroako Gobernuak horren inguruko azterketarik edo bestelako urratsik egiteko asmorik?

Iruñean, 2015eko azaroaren 11n

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Nafarroaren Eguna ospatzeko Nafarroako Gobernuak prestatu duen programari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroaren Eguna ospatzeko Nafarroako Gobernuak prestatu duen programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako

galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion.

Nafarroaren Eguna ospatze aldera –abenduaren 3an, San Frantzisko Xabierkoaren egunez– Nafarroako Gobernuak darabilen programan ez da sartu “Nafarroako Foru Komunitatea” jota-lehiaketa, zeina Tuteran egin ohi baita eta Gobernuaren eta Tuterako Udalaren ekimenez sortu baitzen, ospakizun horretarako. Kontuan hartu beharra dago azken urteotan lehiaketak Gobernuari ez diola gastu handirik ekarri.

Ekimen hori deszentralizazio-adibide bat gehiago zen, Nafarroaren Egunaren ospakizuna Nafarroako bigarren hirira hedatzearen adibide; hain zuzen ere, ekimen oso sentitu, maitatu eta preziatu baten bidez: Nafarroako jota.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez du sartu Nafarroaren Eguna –San Frantzisko Xabierkoaren eguna– ospatzeko programan “Nafarroako Foru Komunitatea” jota-lehiaketa, zeina Tuteran egiten baita hasiera-hasieratik?

Corellan, 2015eko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak toki entitateei zenbait alorren kudeaketan laguntzeko duen unitate espezializatuari buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak toki entitateei zenbait alorren kudeaketan laguntzeko duen unitate espezializatuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zuen programa-akordioan hitz egiten da Toki Administraziooko Departamentuaren barruan toki-entitateei hainbat gai kudeatzen laguntzeko unitate espezializatu bat sortzeari buruz.

– Zer giza baliabidez eta baliabide ekonomikoz hornituko da unitate hori?

– Zeintzuk dira horren helburuak? Zeintzuk izanen dira helburu horien jarraipena egiteko adierazleak?

– Zein izanen da horren funtzionamendua?

Iruñean, 2015eko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, Tokiko Administrazioa Berregituratzeko Planari buruzkoa.*MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, Tokiko Administrazioa Berregituratzeko Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Mari Carmen Segura Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Programa-akordioan esaten da hurrengo bi urteotan ekinen zaiola toki administrazioa berregituratzeko planari, zeina beharrezkoa baita, eta, lehenik, norabide edo helmuga finkatzeko liburu zuria prestatuko dela. Parlamentuan iragan irailaren 22an egindako mintzaldian, kontseilariak adierazi zuen kontuan hartuko zirela lehendik zeuden dokumentuak, eta parte-hartze prozesu bat abiaraziko zela. Antza denez, parte-hartze prozesua jada taxututa dago, Gobernuaren 100 egunen dokumentuaren arabera.

– Zein da parte-hartze prozesu honen taxuketak?

– Zertan datza aipatu prozesua?

– Zer epe aurreikusi duzue parte-hartze prozesurako eta prozesu osterako?

– Kontuan hartuko al duzue jada egina dagoen tokiko maparen ponentzia?

Iruñean, 2015eko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Segura Moreno

Galdera, Hezkuntza Departamentuaren lan eskaintza publikoari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko azaroaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Alberto Catalán Higuera jaunak Hezkuntza Departamentuaren lan eskaintza publikoari buruz aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez.

Galdera 2015eko azaroaren 9ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko azaroaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

